

Aitor Gorosabel, Su ta Gar-eko abeslaria:

“Injustizia litzateke gure letra iturri ohikoena”

-Ermuko txoko bat?

Ba... politenatarikoa, nire ustez, frontoia eta erdialde guztia.

-Tranbia inspirazio leku?

Izan daiteke bai. Adibidez, disko garaian denbora faltan izaten gara beti eta letrak eta egiteko horrelakoak aprobetxatzen ditut. Agian, tranbia, polita izan arren, laburregia baina tren, bai, aprobetxatu izan dut.

-Bizitzeko Ermua ala Eibar?

Gaur egun, Ermua, dudarik gabe. Leku bakarrean bizi izanda ez zara herriaz larregi jabetzen. Irtetea eta beste leku batzuk ezagutzean, ordea... Badakizu, eibartarrok beti izan dugu nahiko ‘hiri ukitua’ eta horrek ba ermuarrak kritikatzera eraman gaitu, etorkinak direla, bestea dela... Egia esan, inoiz ez nuen pentsatuko hemen hain gustura egongo nintzenik. Zarautzen ere bizi izan naiz eta ondo ere bai, surfa, lasaitasuna... Ermura etortzea oso atsegina izan da niretzat, jendea oso xumea da, denak berdinak. Hemen, beharbada, berdintasun horren zati sen-

titzen naiz, Eibarren ezberdinago sentitzen nintzen besteekiko.


- Zerk sorrarazi dezake abesti bat? Zer izan daiteke letra baten iturri?

Nik neuk musika egiten dut lehenengo. Ondoren, entzun eta horrek burura zer ekartzen didan pentsatu. Gure letrak beti izan dira kritikoak eta aldarrikatzaileak. Beraz, alde horretatik, beti saiatzen gara letra kritikoak egiten.

Halere, musikak jokoa ematen du eta erritmo kañeruek errazago eramango zaituzte letra gogorrera. Melodia lasaiak, oster, maitasun edo letra erromantikoekin erraz uztartzen dira, salbuespenak salbuespen, noski. Bi hitzetan, baina, injustizia litzateke gure letra iturri ohikoena.

- Poetatzat duzu zure burua? Baduzu idazteko nolabaiteko gaitasuna, ezta?

Ez dakit, errimekin-eta jolasten dut. Zail egiten zait letra burutzea inongo errima eta erritmo barik. Ikerrek letrak egiten dituenen, errima barikoak direnez askotan, arraro egiten zait hasieran baina, beno, tontokeria dela uste dut, mania.



Bestetik, uste dut nahiko saiatzen naizela hitzak ulergarri, polit eta txukun uzten.

- Zer sentitzen da txalotua izatean edota norberaren lanari errekonozimendua ematen zaionean?

Kontzertu bukaerako txaloek-eta ikaragarri hunkitzen zaituzte. Beste kontu bat da, anonimo moduan edonora joaten zarenean, jendeak ezagutu eta zorian-tzen bazaitu... lotsatu! Baina, jakina, komentario onak beti dira eskertzekoak. Alderantziz, eta hau denborak erakutsi didan gauza bat da, zenbat eta ezagunagoa egin orduan eta sentimendu gehiago sortzen da zure

inguruan, miresmena eta maitasuna, baita gorrotoa eta inbidia ere. Hori oso nabaria izaten da gaueko ordu txikietan, non egun normaletan baino adierazkorrago egoten garen sentimenduekiko. Berehala jakiten duzu, esaterako, zein datorren labana zorroz-tuta min egiteko prest. Horrenbestez, ibilbide luzearen ostean are gehiago eskertzen dira jarrera onak.

- 20 urte jada, atzera begiratu eta zer aldatu da?

Buf, gauza asko, baina aurrekoaz lotuta, orain lehen baino gehiago baloratzen dut esker ona. Neuk ere modu onez etortzen zaida-


“Inoiz ez nuen pentsatuko Ermuan hain gustura egongo nintzenik”

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

narekin zintzoago jokatzen dut, txarto datorrenarekin, aldiz, ez naiz kikiltzen.

Denboraz gauza asko ikasten da, esaterako, publikoarekiko. Lehen, igual, ezetz esaten zenion sinatzeko eskatzen zizunari, bera baino gehiago ez zarelako, eta horren inguruko hamaika azalpen ematen zenuen. Orain, berriz, konturatzen zara etxera etsita joan den horrek ez duela zure azalpenik ulertu eta, hortaz, askoz hobe dela berarentzat garrantzia duen keinu hori egitea eta kitto, zuretzat lelokeria izan arren. Azken finean, pertsona hori pozik geratzea da helburua, nolabait, bere onespina eskertu nahi diozulako.

- Ermuko 'musical Araba' denda entzutean....

Ostras! "Arabara noa, -eta zer galdu zaizu ba Gasteiz aldean?" Oraindik ere egoera hau bizi izaten dut noizbehinka. Araba niretzat, instrumentu haiek ikusi eta begiak zabal-zabalik! Horrelakoak datozkit gogora. Jakina, ezin aipatu barik utzi Begoña. Saltzaile ona eta pertsona ona, asko balio duen pertsona. Gure ibilbidearekin bat joan den denda.

- Eta Ermua eta musika?

Julio Kageta. Garai batean mobida musikal handia zegoen Ermuan. Igual orain ere bai baina oraingoa ez dut ezagutzen. Hori bai, niretzat Julio Kageta... ba, esaterako, jo nuen lehen baxua



eurena zen. Anaiarekin-eta etortzen ginen Julio Kagetaren lokalera eta haiek lagatakoarekin jotzen genuen. Puntazo bat zen, oso ondo portatu ziren gurekin, betiko konpetentzia pike-tontuak gaindituz.

- Zeintzuk dira gertatu beharrekoak kontzertua borobila izan dadin?

Diharduzun horretan sinistea. Eta kontzertu osoa 'goian' mantentzea. Jakina, publiko eta taldearen arteko 'feeling-a' egon behar da.

- Oraingo birak, 20. urteurrenarenak, alegia, badu plus emozionala, ezta?

Bai, jendea oso parte sentitzen da kontzertuetan. Azken finean, jenderik gabe ez ginateke ezer izango. Publikoaren sentimendu hori igartzen ez baduzu nekeza da kontzertuan sartzea eta gozatzea. Birara bueltatuz, oso arrakastatsua izaten ari da, ondo hasi zen baina orain

hobeto doa, beraz, oso pozik gaude. Kontzertu sorta berezi honekin jarraituko dugu udaberrira arte. Zail egingo zaigu gitarra akustiko eta piano barik aritu behar izatea ordutik aurrera.

- Kontzertuetan-eta, oraindik, sekulako motibazioa duzuela nabaritzen da.

Bai, askotan esaten dugu honetan hasi ginela ondo pasatzeko. Zorionez, ogibide bilakatu da. Ondorioz, dena ematen dugu ogibide izaten jarrai dezan. Gainera, eskarmentuak zuzenean hobeto pasatzen laguntzen dizu, erlaxatzen, ziurtasun eza gainditzeko...

- Eta baxujole berriarekin?

Oso gustura, beste pertsona bat beharko dugula jakin arren. Izan ere, lagun honek musika lagata zuen eta gure proiektuan sartu zen guk beste bat topatu arte. Kontua da, baina, lanbide honetan lan guztiak bata bestearen gainean datozela, zuzeneko cd-a, hurrengo diskoa... ez dugu unea aurkitzen, ezta ikusten ere, beste

bat hartzeko. Gainera, primeran egokitu da taldean, musikari ona izateaz gain, oso jatorra baita.

- Eta, beste hoge?

Ja, ja, ez dakit baina urteak gero eta azkarrago doazenez, adin kontuak, badakizue, ba, agian eutsiko diogu. Gogoia, behintzat, ez da falta.

- Bukatzeko, gaur egungo Munduak, Euskal Herriak... eta duela 20 urtekoak alde-ratuz...

Ez da erraza 4 hitzetan esatea, baina lehen aipatu bezala injustizia nabaritzen da beste ezerren gainetik, injustizia Palestinan, injustizia EHn, baita emakumeen aurkako indarkerian ere. Herri xumea da azken finean beti desoreka ekonomikoa, politikoa, soziala... pairatu izan duena. Ziklikoa bihurtzen da eta egia da militantzia deitzen duela egoerak. Bakoitzak ikusiko du zer neurritan eman ahal duen, baina momentua emateko dago, duela 20 urte bezala.

Iker Saenz de Zaitegi eta Juanmi Bravo

"20. urteurrenako bira oso arrakastatsua izaten ari da"



OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

